

**TOLOSAKO UDALA**

Tolosako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait diru laguntza arautzen dituen ordenantza.

ZIOAK AZALTZEA

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilpena arauzkotzezkoak, bere 5. artikuluan Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu, eta ondoren bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan eskubide horiek bizitza sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, herri administrazioei agintzen die, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan, herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten, besteak beste, bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Ildo horretatik, Tolosako Udalak 1990eko ekainaren 29ko Osoko Bilkuran behin betiko onespina eman zion indarrean dagoen Euskararen erabilpena normalizatzeko arauak erregulatzeko dituen udal ordenantzari. Hain zuzen ere, ordenantza horrek, Hirugarren kapituluan, euskararen erabilera Tolosako udalerrian bultzatzeko eta normalizatzeko ekimenak garatzen ditu, besteak beste, euskaraz dakiten herritarren kopurua areagotzeko eta arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko.

Horregatik guztiatik, eta Udalaren diru-laguntza emanaz lortu nahi den interes publikoa eta Udalaren diru laguntzen jarduerak bete behar dituzten printzipioak (publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza, eragingarritasuna eta eraginkortasuna) betetzea bermatzeko, ordenantza hau egin da, parte hartzen duten udal organoen eta diru-laguntzen onuradunen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen marko juridiko orokorra jasotzeko.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Normativa por la que se regulan diversas subvenciones sobre programas gestionados por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Tolosa.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera establece en su artículo 5 los derechos fundamentales de que goza toda la ciudadanía de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia lingüística, y, a continuación, en los capítulos segundo, tercero, cuarto y quinto hace extensivos dichos derechos a todos los ámbitos de la vida social. La ley, así mismo, dispone la obligación de todas las administraciones públicas a respetar, dentro de las competencias de cada institución, la política lingüística respecto a su ciudadanía y promover el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, entre otros aspectos.

En ese sentido, el Ayuntamiento de Tolosa en la Sesión Plenaria celebrada el 29 de junio de 1990 aprobó con carácter definitivo la Ordenanza municipal, actualmente en vigor, que regula las normas para la normalización del uso del euskera. Es precisamente dicha ordenanza la que desarrolla en su Tercer capítulo las iniciativas para la promoción y el uso del euskera en el municipio de Tolosa con la finalidad de, entre otras cosas, incrementar el número de personas con conocimiento del euskera e impulsar su uso en el ámbito socio-económico.

Por todo ello, y con el objetivo de garantizar el cumplimiento del interés público perseguido mediante la concesión de la subvención municipal y de los principios que deben inspirar la actividad subvencional del Ayuntamiento (publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad, no discriminación, eficacia y eficiencia), se formula la presente ordenanza que trata de recoger el marco jurídico general regulador de las actuaciones de los distintos órganos municipales intervinientes y de los derechos y obligaciones de los sujetos



<p><i>Xedapen Orokorrak</i></p> <p><i>Artikulu bakarra. Xedea.</i></p> <p>Arautegi honen xedea da Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatutako programa batzuen konturako diru laguntzak arautzea. Zehazki, ondorengo hauek:</p> <p>—Tolosako enpresetan euskara planak sustatzeko diru laguntzak.</p> <p>—Establezimendu komertzialetako errotuluak euskaratzeko diru laguntzak.</p> <p>—Tolosako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten duten tolosarrentzako diru laguntzak.</p> <p>Diru laguntza bakoitza I, II eta III. eranskinetan arautzen da hurrenez hurren.</p>	<p>beneficiarios de las subvenciones.</p> <p><i>Disposiciones Generales</i></p> <p><i>Artículo único. Objeto.</i></p> <p>El objeto de esta normativa es la regulación de las subvenciones a conceder a cargo de varios programas gestionados por el servicio municipal de Euskera. En concreto, los siguientes:</p> <p>—Subvenciones para el fomento de planes de euskera en las empresas de Tolosa.</p> <p>—Subvenciones para la euscaldunización de los rótulos de los establecimientos comerciales.</p> <p>—Subvenciones para las personas residentes en Tolosa que estudien euskera fuera del euskaltegi municipal de Tolosa.</p> <p>Dichas subvenciones están reguladas en los anexos I, II y III respectivamente.</p>
<p>I. eranskina</p> <p><i>Tolosako enpresetan euskara planak sustatzeko diru laguntzen arautegia.</i></p> <p><i>1. Xedea.</i></p> <p>Diru laguntza hauen xedea da Tolosako enpresetan euskara planak bidera daitezen bultzatzea.</p> <p>Honako gastu hauek jaso ditzakete diru-laguntzak: planok bideratzeko enpresa eskatzaileak kontratatutako aholkularitza edo zerbitzu-enpresak eskatzaileari urte horretan fakturatutako gastuak.</p> <p><i>2. Bete beharreko baldintzak.</i></p> <p>Diru laguntza eskuratu nahi duen enpresak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <p>—Jarduera burutzeko Udalaren baimena izatea.</p>	<p>Anexo I</p> <p><i>Normativa reguladora de las subvenciones para el fomento de los planes de euskera en las empresas de Tolosa.</i></p> <p><i>1. Objeto.</i></p> <p>El objeto de estas subvenciones es promover el desarrollo de planes de euskera en las empresas de Tolosa.</p> <p>Serán gastos subvencionables los siguientes: los gastos que la asesoría o empresa de servicios contratada por la parte solicitante para la realización de los planes mencionados facture dentro del año en curso a dicho solicitante.</p> <p><i>2. Requisitos.</i></p> <p>La empresa que desee recibir esta subvención deberá reunir los siguientes requisitos:</p> <p>— Disponer de la licencia municipal de actividad.</p>



<p>—Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.</p> <p>—Egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.</p> <p><i>3. Finantziarioa.</i></p> <p>Urtero udal aurrekontuan diru kopuru bat izendatuko da diru laguntza hauetarako.</p> <p><i>4. Eskerak.</i></p> <p>Eskerak Udalak emandako inprimakian aurkeztu behar dira, urte bakoitzeko abenduaren 1a baino lehen, behar bezala beteta eta sinatuta. Hurrengo dokumentazioarekin batera:</p> <p>—Urte horretarako enpresak duen euskara plana.</p> <p>—Erakundeak egindako diru-laguntza eskareren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko zinpeko aitortza.</p> <p>—Zerga eta gizarte segurantzako betebeharrak egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak.</p> <p>—Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako diru laguntzak jasotzeko debeku kausen pean ez dagoela dioen zinpeko aitortza.</p> <p>Eskara aurkezteak esan nahi du eskatzaileek bere horretan onartzen dituztela araudi honetan ezarritako baldintzak.</p> <p><i>5. Eskerak diren diru laguntzen zenbatekoa.</i></p> <p>Tolosako Udalak emango duen gehieneko diru-laguntza izango da laguntza jasotzeko modukotzat jo diren gastuen %50 artekoa, 3.000 €-ko mugarekin.</p> <p>Laguntza hauetarako aurreikusitako aurrekontua agortuko balitz, sortutako eskubideak hurrengo urteko aurrekontuen kontura kitatuko lirateke eta lehentasuna izango lukete hurrengo urteko eskareren aurrean.</p>	<p>— No estar incurso en ninguna de las causas señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.</p> <p>— Estar al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, así como del Ayuntamiento.</p> <p><i>3. Financiación.</i></p> <p>Anualmente se consignará una cantidad en los presupuestos municipales para estas subvenciones.</p> <p><i>4. Solicitudes.</i></p> <p>Las solicitudes se presentarán en los impresos proporcionados por el Ayuntamiento, debidamente cumplimentados y firmados, antes del 1 de diciembre de cada año, junto con la siguiente documentación:</p> <p>—El plan de euskera de la empresa, del año en curso.</p> <p>—Declaración jurada sobre las solicitudes de subvención presentadas a las instituciones, así como de las subvenciones recibidas.</p> <p>— Documentos acreditativos de estar al corriente en cuanto a las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.</p> <p>— Declaración jurada de no estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.</p> <p>La presentación de la solicitud implica que la parte solicitante acepta íntegramente las condiciones establecidas en las presentes bases.</p> <p><i>5. Importe de las subvenciones a conceder.</i></p> <p>El importe máximo de la subvención a conceder por el Ayuntamiento de Tolosa será el 50% de los gastos considerados subvencionables, con un límite de 3.000 €.</p> <p>En caso de agotarse el presupuesto previsto para estas ayudas, el derecho a la subvención se liquidará con cargo al presupuesto del año siguiente, y tendrá preferencia frente a las solicitudes presentadas durante ese ejercicio.</p>
--	--



<p><i>6. Erabakia.</i></p> <p>Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko ditu.</p> <p>Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Hizkuntza Politikako udal batzorde informatzaileak diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio dagokion organoari, erabakia har dezan.</p> <p>Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru-laguntza dagokion gisan argitaratuko da.</p> <p>Udalak, batzorde informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.</p> <p><i>7. Onuradunen betebeharrak.</i></p> <p>Honako hauek dira onuradunen betebeharrak:</p> <p>a) Diru-laguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.</p> <p>b) Diru-laguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Tolosako Udalaren aurrean justifikatzea.</p> <p>c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.</p> <p>d) Tolosako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste diru-laguntzen berri ematea.</p> <p>e) Udalarekin hitzarmena sinatzea diru-laguntza ematea erabakitzen denean.</p> <p>f) Hitzarmena emandako diru-laguntzaren notifikazioa jaso eta hilabeteko epean sinatu beharko da.</p> <p>g) Hilabeteko epe hori igarota diru-laguntzaren onuradunari lepora dakiokkeen arrazoiren bategatik ez bada hitzarmena sinatzen, enpresak diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da.</p> <p>h) Hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen honako dokumentazioa aurkeztu:</p> <p>—Egindako jardueren memoria.</p>	<p><i>6. Resolución.</i></p> <p>Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, éstas serán estudiadas por el Departamento Municipal de Euskera.</p> <p>Finalmente, y tras recibir el informe técnico del departamento, la comisión informativa municipal de Política Lingüística hará la propuesta de concesión de subvenciones al órgano correspondiente para esta dicte su resolución.</p> <p>Esta será notificada a la parte interesada y la concesión de la subvención será publicada del modo que corresponda.</p> <p>El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa, podrá requerir toda la información complementaria que considere necesaria antes de formular la propuesta de acuerdo.</p> <p><i>7. Obligaciones de la parte beneficiaria.</i></p> <p>Son obligaciones de la parte beneficiaria:</p> <p>a) Realizar las actividades y/o cumplir los fines que fundamentan la concesión de la subvención.</p> <p>b) Justificar ante el Ayuntamiento de Tolosa el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos tenidos en cuenta para la concesión y uso de la subvención.</p> <p>c) Someterse a las actuaciones de comprobación que realice el Ayuntamiento.</p> <p>d) Comunicar al Ayuntamiento de Tolosa cualquier otra subvención que le haya sido otorgada para la actividad que se subvenciona.</p> <p>e) Formalizar un convenio con el Ayuntamiento tras el acuerdo de concesión de la subvención.</p> <p>f) El contrato se firmará en el plazo de un mes desde la notificación del acuerdo de la subvención concedida.</p> <p>g) Transcurrido el plazo de un mes señalado para la firma del convenio, si por alguna causa imputable a la parte beneficiaria no se formalizase, se entenderá que la empresa renuncia a la subvención concedida.</p> <p>h) Presentar la siguiente documentación antes del 31 de</p>
---	---



<p>—Gastu eta sarreren balantzea.</p> <p>—Egindako gastuen faktura originalak edo konpultsatuak.</p> <p>—Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharren gaineko ziurtagiriak.</p> <p><i>8. Diru-laguntza ordaintzeko modua.</i></p> <p>Udalak erabakia hartu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero ekingo zaio diru-laguntzaren ordainketari.</p> <p><i>9. Diru-laguntzen bateragarritasuna.</i></p> <p>Udalak emandako diru laguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.</p> <p>Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste diru laguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.</p> <p><i>10. Diru-laguntza aldatzea.</i></p> <p>Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.</p> <p><i>11. Zuzenbide osagarria.</i></p> <p>Arautegi honetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 legea, diru-laguntzei buruzkoa, aplikatuko da.</p>	<p>enero del siguiente año.</p> <p>— Memoria de las actividades realizadas.</p> <p>— Balance de gastos e ingresos.</p> <p>— Originales o copias compulsadas de las facturas de los gastos realizados.</p> <p>— Certificados de estar al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.</p> <p><i>8. Forma de abono de la subvención.</i></p> <p>Se procederá al pago de la subvención una vez que el Ayuntamiento haya resuelto y se hayan presentado los documentos requeridos.</p> <p><i>9. Compatibilidad de las subvenciones.</i></p> <p>La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.</p> <p>No obstante, el importe no podrá exceder, por sí solo o en concurrencia con otras subvenciones, el coste de la actividad subvencionada.</p> <p><i>10. Modificación de la subvención.</i></p> <p>Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación del acuerdo de concesión adoptado.</p> <p><i>11. Derecho supletorio.</i></p> <p>En todo lo no recogido expresamente en la presente normativa, se estará a lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p>
<p>II. eranskina</p> <p><i>Establezimentu komertzialetako errotuluak euskaratzeko diru-laguntzen arautegia.</i></p>	<p>Anexo II.</p> <p><i>Normativa de las subvenciones para la euskaldunización de los rótulos de los establecimientos comerciales.</i></p>



1. Xedea.

Diru-laguntza hauen xedea da Tolosako establezimendu komertzialak bultzatzea beren establezimenduaren kanpoko errotuluak eta hizkuntza paisaia euskaraz jartzera.

2. Bete beharreko baldintzak.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.

Era berean, diru-laguntza eskuratu nahi duen establezimendu komertzialak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- 1.- Diru-laguntza establezimenduaren fatxadan jarritako errotulu nagusiarengatik emango da.
- 2.- Euskara hutsean idatzitako errotulu berriaren %50 ordainduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.
- 3.- Errotulu nagusiak euskara hutsez egon behar du (Adib.: Larrarte arrandegia).
- 4.- Errotulu nagusiak izen berezia bakarrik badu, ez da diru-laguntzarik emango (Adib. Larrarte)
- 5.- Diru-laguntza jaso ahal izateko, errotulu nagusia euskara hutsez egoteaz gain, establezimenduaren hizkuntza paisaia finko eta aldakorrak (erakusleioa, toldoa, barruko oharrak, prezioak...) euskaraz ere egon behar du.
- 6.- Diru-laguntza jaso ahal izateko Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan azaldu behar du.
- 7.- Behin diru-laguntza jaso ondoren, establezimenduaren errotulu nagusiaz gain, hizkuntza paisaia finko eta aldakorrak ere euskaraz izan behar du. Hala ez bada, bere garaian jasotako diru-laguntza itzul dezan eskatu ahal izango zaio.
- 8.- Diru-laguntza jasotzeko aurkeztu beharreko

1. Objeto.

El objeto de estas subvenciones es impulsar a los establecimientos comerciales de Tolosa a euskaldunizar los rótulos exteriores de sus establecimientos, así como su paisaje lingüístico.

2. Requisitos a cumplir.

No incurrir en ninguna de las causas señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.

Asimismo, el establecimiento comercial que desee recibir esta subvención deberá reunir los siguientes requisitos:

- 1.- La subvención se concederá por el principal rótulo instalado en la fachada del establecimiento.
- 2.- El Ayuntamiento de Tolosa abonará al solicitante el 50% del coste del rótulo redactado íntegramente en euskera, con un límite de 450 €.
- 3.- El rótulo principal deberá estar íntegramente en euskera (p. ej.: Larrarte arrandegia).
- 4.- En el caso de que el rótulo principal se componga únicamente de un nombre propio, no se concederá ninguna subvención (p. ej.: Larrarte)
- 5.- Para poder acceder a la subvención, además de que el rótulo principal esté íntegramente en euskera, el paisaje lingüístico tanto el fijo como el no fijo (en el escaparate, toldo, notas del interior, precios...) deberá estar redactado también en euskera.
- 6.- Para poder acceder a la subvención es necesario figurar en el padrón de actividades económicas de Tolosa.
- 7.- Una vez recibida la subvención, además del rótulo principal deberá mantenerse también en euskera el paisaje lingüístico del establecimiento. En caso contrario, se podrá requerir la devolución de la subvención percibida.
- 8.- Documentos que deberán aportarse para obtener la subvención:



<p>agiriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Tolosako Udalaren Erregistroan ematen den eskaera-orria, behar bezala beteta.• Establezimendua Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan egotearen ziurtagiria.• Errotulu nagusiarengatik ordaindutako diru-kopuruaren ordainagiria. <p>9.- Diru-laguntza izaera ofizialekoak ez diren merkataritza edo/eta zernahi motatako erakundeei eman ahal izango zaie.</p> <p><i>3. Finantziazioa.</i></p> <p>Urtero udal aurrekontuan diru-kopuru bat izendatuko da diru-laguntza hauetarako.</p> <p><i>4. Eskaerak.</i></p> <p>Diru-laguntza eskaria errotulu nagusia jarri ondorengo 90 egunen barruan egin behar da. Ordainagiriaren data hartuko da estreinako egun moduan. Eskaera eta beste agiri guztiak Tolosako Udalaren Erregistroan aurkeztu behar dira.</p> <p><i>5. Eskainiko diren diru-laguntzen zenbatekoa.</i></p> <p>Euskara hutsean idatzitako errotulu berriaren %50 ordainduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.</p> <p>Laguntza honetarako aurreikusitako aurrekontua agortuko balitz, sortutako eskubideak hurrengo urteko aurrekontuen kontura kitatuko lirateke eta lehentasuna izango lukete hurrengo urteko eskarien aurrean..</p> <p><i>6. Erabakia.</i></p> <p>Eskaera aurkeztu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko du, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.</p> <p>Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera</p>	<ul style="list-style-type: none">• Impreso de solicitud que se facilitará en el registro de entrada del Ayuntamiento de Tolosa, debidamente cumplimentado.• Certificado acreditativo de que el establecimiento figura en el padrón de actividades económicas de Tolosa.• Factura de la cantidad abonada por el rótulo principal. <p>9.- La subvención podrá concederse a establecimientos comerciales o de otra índole que no sean de carácter oficial.</p> <p><i>3. Financiación.</i></p> <p>Anualmente se consignará una cantidad en los presupuestos municipales para estas subvenciones.</p> <p><i>4. Solicitudes.</i></p> <p>La solicitud de subvención se deberá realizar dentro del plazo de 90 días tras la instalación del rótulo principal. Como primer día del plazo se considerará la fecha de la factura. Tanto la solicitud como los demás documentos deberán presentarse en el Registro de entrada del Ayuntamiento de Tolosa..</p> <p><i>5. Importe de las subvenciones a conceder.</i></p> <p>El Ayuntamiento de Tolosa abonará al solicitante el 50% del coste del rótulo redactado íntegramente en euskera, con un límite de 450 €.</p> <p>En caso de agotarse el presupuesto previsto para estas ayudas, el derecho a la subvención se liquidará con cargo al presupuesto del año siguiente, y tendrá preferencia frente a las solicitudes presentadas durante ese ejercicio.</p> <p><i>6. Resolución.</i></p> <p>Una vez presentada la solicitud, ésta será estudiada por el Departamento municipal de Euskera, y, en el caso de que faltase algún documento, se concederá un plazo de 10 días para su subsanación.</p> <p>Finalizado dicho plazo sin haberse presentado la documentación requerida, se entenderá que el interesado ha</p>
--	--



<p>artxibatu egingo da.</p> <p>Azkenik, Euskara Zerbitzuak, txosten teknikoa egin ondoren, proposamena egingo dio Alkatetzari erabakia har dezan.</p> <p>Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru-laguntzen informazioa dagokion moduan argitaratuko da.</p> <p><i>7. Onuradunen betebeharrak.</i></p> <p>Onuradunaren betebeharrak dira:</p> <p>a) Diru-laguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.</p> <p>b) Diru-laguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Tolosako Udalaren aurrean justifikatzea.</p> <p>c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.</p> <p>d) Tolosako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste diru-laguntzen berri ematea.</p> <p><i>8. Diru-laguntza ordaintzeko modua.</i></p> <p>Diru-laguntzaren %100 ordainduko da erabakia hartu eta jakinarazten denean.</p> <p>Urteko diru-izendapena agortu ondoren, onartutako eta ordaindu gabeko diru-laguntzak hurrengo urteko aurrekontua onartutakoan ordainduko dira, aurrekontuetan horretarako jasotako partidaren kargura.</p> <p><i>9. Diru-laguntzen bateragarritasuna.</i></p> <p>Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.</p> <p>Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.</p>	<p>desistido y se procederá al archivo de la solicitud.</p> <p>Finalmente, y una vez que el departamento haya emitido su informe técnico, la Comisión Municipal Informativa de Euskera hará la propuesta de concesión de subvenciones al Alcalde para que éste dicte la oportuna resolución.</p> <p>La resolución adoptada se comunicará a la parte interesada y se publicará del modo que corresponda.</p> <p><i>7. Obligaciones de los beneficiarios.</i></p> <p>Son obligaciones de los beneficiarios:</p> <p>a) Realización de las actividades y/o cumplimiento de los fines objeto de la subvención.</p> <p>b) Justificación ante el Ayuntamiento de Tolosa del cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos para la concesión y uso de la subvención.</p> <p>c) Someterse a las actuaciones de comprobación que realice el Ayuntamiento.</p> <p>d) Comunicar al Ayuntamiento de Tolosa si recibe algún otro tipo de ayuda por la actividad objeto de subvención.</p> <p><i>8. Forma de abono de la subvención.</i></p> <p>Se abonará 100% de la subvención tras la notificación del acuerdo de su concesión.</p> <p>Una vez agotada la consignación económica anual, las subvenciones aprobadas que hayan quedado pendientes se abonarán una vez aprobado el presupuesto del próximo año, y se realizará a cargo de la partida presupuestaria que exista para tal fin.</p> <p><i>9. Compatibilidad de las subvenciones.</i></p> <p>La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.</p> <p>Sin embargo, el importe no podrá exceder, por sí solo o en concurrencia con otras subvenciones, al coste de la actividad subvencionada.</p>
---	--



<p><i>10. Diru-laguntza aldatzea.</i></p> <p>Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.</p> <p><i>11. Zuzenbide osagarria.</i></p> <p>Arautegi honetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzkoa, aplikatuko da.</p>	<p><i>10. Modificación de la subvención.</i></p> <p>Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda.</p> <p><i>11. Derecho supletorio.</i></p> <p>En todo lo no recogido expresamente en la presente normativa, se estará a lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p>
<p>III. eranskina</p> <p><i>Tolosako udal euskaltegitik kanpo euskaraz ikasten dutenentzako diru-laguntzen arautegia.</i></p> <p><i>1. Helburua.</i></p> <p>Diru-laguntza hauen helburua da Tolosako bizilagunak euskara ikasteko ikastaroetan parte hartzera bultzatzea.</p> <p><i>2. Bete beharreko baldintzak.</i></p> <p>Diru laguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:</p> <p>—Tolosan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 2 hilabete lehenagotik.</p> <p>—Euskara ikastaro batean parte hartzea, Tolosako Udal Euskaltegitik kanpo, HABEk homologatutako euskaltegiren batean.</p> <p>—Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.</p> <p>—Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: %85. Egiaztapena dagokion euskaltegiak egin behar du.</p> <p><i>3. Finantziazioa.</i></p>	<p>Anexo III</p> <p><i>Subvenciones para aquellas personas que estudian euskera fuera del euskaltegi municipal de Tolosa.</i></p> <p><i>1. Objeto.</i></p> <p>El objeto de estas subvenciones es impulsar la participación en cursos de euskera de la población de Tolosa.</p> <p><i>2. Requisitos .</i></p> <p>Las personas que deseen recibir esta subvención deberán reunir los siguientes requisitos:</p> <p>—Estar empadronadas en Tolosa al menos dos meses antes del comienzo del curso.</p> <p>—Haberse matriculado en un cursillo de euskera en un euskaltegi homologado por HABE fuera del Euskaltegi municipal de Tolosa.</p> <p>—No estar incurso en ninguna de las causas señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.</p> <p>—Para recibir la subvención deberán certificar como mínimo la siguiente asistencia: 85%, que será acreditada por el euskaltegi correspondiente.</p> <p><i>3. Financiación.</i></p>



<p>Urtero udal aurrekontuan diru kopuru bat izendatuko da diru laguntza hauetarako.</p> <p>Laguntzetarako aurreikusitako aurrekontua eskari guztiei erantzuteko bestekoa ez bada, udal-erregistroan eskaera lehenen aurkeztu dutenek izango dute lehentasuna, eta urteko laguntzetan sartzen ez direnen eskubideak hurrengo urteko aurrekontuaren kontura kitatuko dira eta lehentasuna izango dute urte horretako beste eskariekin alderatuta.</p> <p><i>4. Eskaerak.</i></p> <p>Eskaerak Udalak emandako inprimakian aurkeztu beharko dira, dagokion ikasturte amaierako urteko irailaren 30a baino lehen, behar bezala beteta eta sinatuta, ondorengo dokumentazioarekin batera:</p> <ul style="list-style-type: none">—Nortasun Agiriaren kopia.—Matrikularen ordainagiria.—Euskaltegiaren ziurtagiria, asistentzia zenbatekoa izan den azalduko duena. <p><i>5. Diru laguntzaren zenbatekoa.</i></p> <p>Emango diren laguntzak honako hauek izango dira:</p> <p>5.1 Aurrez aurreko eskoletan eta modulu konbinatuetan:</p> <ul style="list-style-type: none">◦ B2 arteko ikastaroetan, matrikularen % 75◦ C1 ikastaroetan, matrikularen % 50◦ C2 ikastaroetan, matrikularen % 25 <p>5.2 Autoikaskuntza:</p> <ul style="list-style-type: none">◦ Matrikularen % 75 <p>5.3 Matrikula osoaren laguntza emango zaie honako baldintza hauek betetzen dituztenei:</p> <ul style="list-style-type: none">◦ Familia unitateko kide bakoitzak urteko, batez beste, 8.979,60 euroko diru-sarrera gordina ez gainditzea.◦ Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen	<p>Anualmente se consignará una cantidad en los presupuestos municipales para estas subvenciones.</p> <p>En caso de que el presupuesto previsto para las ayudas no sea suficiente para hacer frente a todas las solicitudes, se priorizará conforme al orden de presentación de las solicitudes en el registro municipal. Los derechos de las personas que no entren en las ayudas correspondientes al ejercicio en curso se liquidarán a cargo del presupuesto del siguiente ejercicio, teniendo preferencia ante las solicitudes presentadas en el mismo.</p> <p><i>4. Solicitudes.</i></p> <p>Las solicitudes se deberán presentar en el impreso facilitado por el Ayuntamiento, debidamente cumplimentadas y firmadas, antes del 30 de setiembre del año en que finaliza el correspondiente cursillo, junto con la siguiente documentación:</p> <ul style="list-style-type: none">—Copia del Documento de Identidad.—Recibo del abono de la matrícula.—Certificado del euskaltegi con indicación de la asistencia a las clases. <p><i>5. Importe de la subvención.</i></p> <p>Las subvenciones se concederán conforme a lo siguiente:</p> <p>5.1 En clases presenciales y módulos combinados:</p> <ul style="list-style-type: none">◦ En cursillos de nivel inferior o igual a B2, el 75 % de la matrícula.◦ En cursillos de nivel C1, el 50 %◦ En cursillos de nivel C2, el 25 % <p>5.2 Autoaprendizaje:</p> <ul style="list-style-type: none">◦ El 75 % de la matrícula <p>5.3 Se subvencionará el 100 % de la matrícula a las personas que cumplan los siguientes requisitos:</p> <ul style="list-style-type: none">◦ Que cada miembro de la unidad familiar no tenga, como promedio, unos ingresos brutos anuales superiores
---	--



<p>dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzea.</p> <ul style="list-style-type: none">◦ Familia ugariaren txartela indarrean edukitzea. <p>6. Erabakia.</p> <p>Eskaerak iritsi ahala aztertuko ditu Udaleko Euskara departamentuak.</p> <p>Azkenik, departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, diru-laguntzak emateko proposamena egingo zaio Alkatetzari erabakia har dezan.</p> <p>Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio.</p> <p>Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez lau hilabeteko epean hartuko da erabakia.</p> <p>Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.</p> <p>Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.</p> <p>7. Onuradunen betebeharrak.</p> <p>Onuradunaren betebeharrak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Diru-laguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.b) Diru-laguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Tolosako Udalaren aurrean justifikatzea.c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.d) Tolosako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste diru-laguntzen berri ematea.e) Jasotako diru-laguntza itzultzea, horretarako arrazoiren bat izango balitz.	<p>a 8.979,60 €.</p> <ul style="list-style-type: none">◦ Cumplir los requisitos económicos para recibir una de las prestaciones para la inclusión social y la garantía de ingresos que ofrece el sistema vasco.◦ Poseer el título de familia numerosa en vigor. <p>6. Resolución.</p> <p>El departamento municipal de Euskera examinará las solicitudes a medida que se presenten.</p> <p>Una vez que el departamento haya emitido su informe técnico, se propondrá la concesión de subvenciones a Alcaldía, para que esta dicte la resolución correspondiente.</p> <p>Se notificará la resolución a la persona interesada.</p> <p>La resolución se adoptará como máximo en el plazo de cuatro meses tras la finalización del plazo de presentación de solicitudes.</p> <p>Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no ha adoptado ninguna resolución respecto a alguna solicitud, se entenderá que dicha solicitud no ha sido aceptada.</p> <p>El Ayuntamiento podrá requerir toda la información complementaria que considere necesaria para formular la propuesta de acuerdo.</p> <p>7. Obligaciones de las personas beneficiarias.</p> <p>Obligaciones de las personas beneficiarias:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Realizar las actividades y/o cumplir los fines que fundamentan la concesión de la subvención.b) Justificar ante el Ayuntamiento de Tolosa el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos tenidos en cuenta para la concesión y uso de la subvención.c) Someterse a las actuaciones de comprobación que deba realizar el Ayuntamiento.d) Comunicar al Ayuntamiento de Tolosa cualquier otra subvención que le haya sido otorgada para la misma
--	---



<p><i>8. Diru-laguntza ordaintzeko modua.</i></p> <p>Udalak erabakia hartu eta gero ordainduko du onartutako diru-laguntzaren %100.</p> <p><i>9. Diru laguntzen bateragarritasuna.</i></p> <p>Udalak emandako diru laguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.</p> <p>Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko adinakoa.</p> <p><i>10. Diru laguntza aldatzea.</i></p> <p>Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.</p> <p><i>11. Zuzenbide osagarria.</i></p> <p>Arautegi honetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzkoa, aplikatuko da.</p>	<p>actividad que ahora se subvenciona.</p> <p>e) En caso de que exista algún motivo para la devolución de la ayuda recibida, efectuar dicha devolución.</p> <p><i>8. Forma de abono de la subvención.</i></p> <p>El Ayuntamiento abonará el 100% de la subvención una vez que se adopte el acuerdo de concesión.</p> <p><i>9. Compatibilidad de las subvenciones.</i></p> <p>La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.</p> <p>No obstante, el importe no podrá exceder, por sí solo o en concurrencia con otras subvenciones, del coste de la actividad subvencionada.</p> <p><i>10. Modificación de la subvención.</i></p> <p>Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgada por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda.</p> <p><i>11. Derecho supletorio.</i></p> <p>En todo lo no recogido expresamente en la presente normativa, se estará a lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p>
--	---



TOLOSAKO UDALA